Aretxabaletako Udala

BIDE GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

I. titulua. LEHIAKETAREN XEDEA

Aretxabaletako Udalak, Baldintzen Agiri honen bidez, hiri bideetako garbiketa zerbitzu publikoa eta antzekoak adjudikatzeko lehiaketaren deialdia egin du.
Zerbitzuak astelehenetik igandera emango dira, biak barne.
Hauek izango dira garbiketa zerbitzuaren langileak gutxienez:

- Astelehenetik ostiralera: lau behargin, beharrezko makinak eta arduraduna barne.
- Larunbatetan: hiru behargin, beharrezko makinak eta arduraduna barne.
- Igande eta jaiegunetan: bi behargin, beharrezko makinak eta arduraduna barne.

Langileen egutegiak udal teknikariekin adostuko dira.

II. titulua. EMANGO DIREN ZERBITZUAK

Emango diren zerbitzuak Agiri honen artikuluetan definitu dira, eta bi bloketan banatzen dira:
A. Derrigorrezko zerbitzuak.
B. Urbanizazio berriak.

A. DERRIGORREZKO ZERBITZUAK

I. HIRI BIDEEN GARBIKETA ETA ANTZEKOAK

A Bide publikoen garbiketa

1 Espaloiak, galtzadak eta oinezkoen guneak eskuz erraztatzea.
2 Espaloiak, galtzadak eta oinezkoen guneak bitarteko mekanikoz erraztatzea.
3 Espaloiak, galtzadak eta oinezkoen guneak eskuz edo bitarteko mekanikoz urarekin garbitzea.
4 Paperontziak hustea.
5 Zuhaitz txorkoak garbitzea.
6 Animalien gorozkiak garbitzea.
7 Hostoen erortze garaiko garbiketa.

B Askotariko eremuen garbiketa

1 Pasealeku eta industrialdeak garbitzea.
2 Eskailerak garbitzea.
3 Udal parkeak garbitzea.
4 Eraikinen atzealdea garbitzea.
5 Eskoletako patioak garbitzea.
6 Azoka garbitzea.
7 Haur parkeak garbitzea.
8 Txakurrentzako eremuak garbitu eta mantentzea.

C Garbiketa bereziak

1 Paperontziak garbitzea.
2 Edukiontzien inguruak garbitzea.
3 Olio eta koipe orbanak garbitzea.
4 Espaloi eta plazetako zoladuren garbiketa berezia.
5 Igande eta jaiegunetako garbiketa berezia.
6 Berehalako ekintzako garbiketa zerbitzua.

7 Ekitaldi, azoka eta festen ondorengo garbiketa.
8 Pintadak, kartelak, pegatinak, banderatxoak eta pankartak kendu eta garbitzea.
9 Arazo zehatzak dituzten eremuen garbiketa berezia.
10 Hustubideak garbitzea.
11 Elurte eta izozte handietarako plana.
12 Larrialdietarako plana.

II. HONDAKINEN BILKETA ETA GARRAIOA

A Animalia hilen bilketa.

B Garbiketan jasotako hondakinen bilketa eta garraioa.

B. URBANIZAZIO BERRIAK

III. titulua. ZERBITZUEN DEFINIZIOA ETA MAIZTASUNA
(planoen eranskinaren arabera).

Bide publikoen garbiketa zerbitzurako, Udalak kategoria orokor hauek ezarri ditu:
-A eremuak: egunero. (Alde Zaharra).
-B eremuak: astean 3 aldiz. (Gainerakoak).
-C eremuak: astean behin. (Industrialdeak).

Garbitzeko baliatuko diren bitartekoak lizitatzaile bakoitzak proposatu beharko ditu, bai giza baliabideei zein baliabide materialei eta garbiketa sistemei dagokienez, zerbitzua ahalik eta efizienteena izan dadin.

Aurrekoa gorabehera, adjudikaziodunak jarraian adierazi diren garbiketa mota edo sistema bakoitzerako definitu diren egutegiak/maiztasunak errespetatu beharko ditu.

Eremuen banaketa erantsitako planoetan ageri da (1. eranskina).

A. DERRIGORREZKO ZERBITZUAK

I. HIRI BIDEEN GARBIKETA ETA ANTZEKOAK

A.- BIDE PUBLIKOEN GARBIKETA

1.- ESPALOIAK, GALTZADAK ETA OINEZKOEN GUNEAK ESKUZ ERRAZTATZEA.

Espaloiak, pasealekuak, plazak, galtzadak eta abar sakonki garbitu beharko dira, batez ere espaloien hurbileko eremuak. Zerbitzu honek barne du ere espaloi eta galtzadetan agertzen diren belarrak eta sasiak kentzea.

Behargin batek edo gehiagok osatutako lantaldeek gauzatuko dituzte lan hauek, eginkizuna modu eraginkorrean betetzeko behar dituzten tresnen laguntzarekin. Ekipo horien barruan orga bat egongo da, beharrezko ultilekin (erratza, biltzailea, etab.), eta haize-makina bat orga bakoitzeko

Eskuzko garbiketa erabiliko da mekanizazioa posible ez den eremuetan bakarrik.

Hona hemen lanen maiztasunak:
- egunero.
- astean 3 aldiz.
- astean behin.
- hilean behin.
- urtean 3 aldiz.

2.- ESPALOIAK, GALTZADAK ETA OINEZKOEN GUNEAK BITARTEKO MEKANIKOZ ERRAZTATZEA.

Erraztatzea ahalik eta gehien mekanizatuko da garbitzen diren hiri eremuetan. Nolanahi ere, makinek eskuz garbitzeko osagarriak garraiatzeko aukera eman beharko dute ere, bi garbiketa motak konbinatu ahal izateko.

Erraztatze mekanikoa bide publikoetako galtzadak eta espaloiak bitarteko mekanikoz erraztatzean datza, agertzen diren hondakin, zabor, hauts eta abar guztiak kendu eta bilduta.

Erratz makinak erabiliko dira (xurgapen bidezkoak) botatzen den airearen kutsadura saihesteko sistemekin, eta ureztatze gailuak ere izango dituzte hautsa ez sortzeko.

Soto, garaje eta antzekoetan kokatutako plaza eta erabilera publikoko guneetan, egituraren ondorioz “erabilera gainkarga” mugatua badute, erabiliko den makinaren pisua kontuan hartu beharko da.

Hona hemen lanen maiztasunak:

- egunero.
- astean 3 aldiz.
- astean behin.
- hilean behin.
- urtean 3 aldiz.

3.- ESPALOIAK, GALTZADAK ETA OINEZKOEN GUNEAK ESKUZ EDO BITARTEKO MEKANIKOZ URAREKIN GARBITZEA.

Garbiketa honetan, presiopeko ura botako da galtzada eta espaloien gainean, batez ere zintarrien inguruan, mahuka bidez edo aho orientagarriak dituzten ibilgailuen bidez.

Hondakinak zintarrietarantz eramango dira espaloien kasuan, eta euri uren sarerantz plaza eta oinezkoen guneen kasuan. Ondoren, hondakin horiek jaso egingo dira.

Garbiketa eragiketa hauek eguraldia eta gainazalen zoladuraren egoera egokiak direnean egingo dira bakarrik. Ur bidezko garbiketa ez da egingo euri, elur eta izozte garaian.

Eskuz, bitarteko mekanikoz edo bietara egindako ur bidezko garbiketa modalitateen artean, lizitatzaileak egokien deritzona eskainiko du, baina betiere parametro hauek kontuan hartuta: efizientzia handiena, emaitzak, modalitate bakoitzaren kostua eta mugak, aukerak eta inguruaren ezaugarriak. Era berean, kontuan hartu beharko dira ere espaloi eta galtzaden zabalera, maldak, errepideko zirkulazioaren noranzkoa, zoladuraren izaera eta egoera, estolderia sarearen edukiera eta ezaugarriak, ur harguneen kokalekua eta ezaugarriak, espaloiaren maila atari, etxe eta saltokiekiko, eta ibilgailuen aparkaleku mota.

Hona hemen lanen maiztasunak:

-1. maila, alde zaharra eta inguruak. Astean behin, astelehenetan ahal bada.
-2. maila, bide nagusiak. Astean behin.
-3. maila, gainerako hiri eremuak. Hilabetean behin.

4.- PAPERONTZIAK HUSTEA

Udalerriko uneko paperontzietan eta etorkizunean instalatzen diren horietan saski barruan uzten diren hondakin guztien bilketan datza lana. Horretarako, paperontzia ireki beharko da, horretarako gaitu den mekanismoaren bidez, eta debekatuta egongo da eskua sartzea hondakinak ateratzeko.

Gaur egun, udalerrian dauden paperontzi guztiak birziklatzekoak dira (4 gai: organikoa, errefusa, ontziak, papera). Paperontzien bilketa ere birziklatzeko moduan egingo da, hau da, gaikako bilketa egingo da. Erabiltzaileek ez badituzte hondakinak behar bezala gaika bereizi eta hondakinak nahasita badaude paperontzian, errefusera botako dira.

Maiztasuna erraztatzearen bera izango da gutxienez. Dena den, paperontziak husteko maiztasuna nahikoa izan beharko da inoiz ere beteta egon ez daitezen eta beti erabiltzeko edukiera gera dadin.

Paperontziak Udalak hornituko ditu, beraz, adjudikaziodunak ez du paperontzi berririk ipini beharko.

Adjudikaziodunak udalerriko paperontzietan aurkitzen dituen arazoak jakinarazi beharko ditu dagozkion parteetan.

5.- ZUHAITZ TXORKOAK GARBITZEA

Zuhaitz txorkoak espaloien modu berean garbituko dira, eta maiztasun berarekin.

6.- ANIMALIEN GOROZKIAK GARBITZEA

Eragiketa hau egingo da horrelako hondakinak aurkitzen diren tokietan, bai eta txakurrentzako eremuetan ere. Lizitatzaileek adieraziko dute horretarako garbiketa sistema eraginkorrenak zeintzuk diren. Oro har, zerbitzu hau galtzadak, espaloiak, pasealekuak eta parkeak erraztatzeko eragiketekin batera egingo da, eta maiztasun berarekin.

7.- HOSTOEN ERORTZE GARAIKO GARBIKETA

Hostoen bilketa udazkenean eta/edo zerbitzua beharrezkoa denean egingo da, udalerrian pilatzen den hosto bolumen handirako egokiak diren baliabide mekaniko eta giza baliabide egokiak jarrita. Hostoak modu independentean jasoko dira eta Udalak adierazten duen landare hondakinetarako zabortegi baimendura eramango dira (gaur egun AKEI-Arrasate).

Urria eta martxoa bitartean pilatzen diren orrien bulomen altuak eta goiko puntuan zehaztutako bereizitako bilketaren beharrak kontuan hartuta, aurreikuspenaren eta eskaintzaren barruan sartuko da langileen batura (langile bat gehiago), zehaztutako epean.

B.- ASKOTARIKO EREMUEN GARBIKETA

1.- PASEALEKU ETA INDUSTRIALDEAK GARBITZEA

Pasealeku eta industrialdeetan astean behin egingo da mantentze garbiketa, eta urtean hirutan garbiketa sakona. Garbiketa horrek barne izango ditu espaloiak, pasealekuak, zintarriak eta paperontziak hustea.

Astean behingo garbiketa eta urtean hiru garbiketa sakon behar dituzten eremuak.

Arrasate eta Eskoriatza lotzen dituen hiri bidegorria.
Bainuetxetik Urkulura doan bidegorria, hiri tartea, aisialdiko baratzeetara iritsi arte.
Basabe Industrialdea. (Basabe Industrialdea 3-5-7-11-4-6. Copreci kalea 1-2).
Basabe Industrialdea, saihesbiderako irteera. (Basabe Industrialdea 1 eta 1W).
Industrialdetik Etxebarrira, Apotzagaetxebarri auzoan.
Bainetxe Industrialdea.
Lausitta 17.
Otalora 31 (4a eremua, hodiak)
Deba ibaiko ezkerraldeko pasealeku osoa, Lausitta kaleko 28tik hasi eta Loramendi kaleko 42. zenbaki ondoko zubira arte.

Eremu hauen astean behingo garbiketaz gain, urtean 3 aldiz, garbiketa sakon bereziak egingo dira. Horietan, sakonki erraztatu eta urarekin garbituko dira eremuak eta, beharrezkoa balitz, uneko arekak sakonki garbituko dira ere.

Garbiketa hauen datak udal zerbitzu teknikoen eta adjudikaziodunaren artean adostuko dira.

2.- ESKAILERAK GARBITZEA

Udalerriko eskailera guztiak garbitu behar dira, dagokien erraztatze eta ur bidezko garbiketarekin.

Erraztatzearen maiztasuna astean behingoa izango da eta ur bidezko garbiketarena hilean behingoa.

3.- UDAL PARKEAK GARBITZEA

Uneko udal parkeak garbitu behar dira, zehazki, Santakurtzekoa (bidegorri ondoan), saihesbiderako ezponda barne, Apotzagaetxebarrikoa (kiroldegi aurrean), Markoleko etxe atxikien atzeko parke txikia, San Miguel Bedarretakoa (Deba ibai ondoan), eta Tarapea/Iturrizarrekoa (Deba ibai ondoan).

Parkeak astean behin garbituko dira, gune zolatuen eta gune berdeen garbiketa barne hartuta, eta paperontziak hustu egingo dira.

4.- ERAIKINEN ATZEALDEA GARBITZEA

Ezponden aldera ematen duten eta oinezkoen espaloiak ez diren eraikinen atzealdeak garbitzean datza. Intentsitate txikiagoarekin garbitzen diren eremuak dira eta garbiketa sakon bat egin behar zaie, eremua inbaditzen duten belarrak, lurrak eta sasiak kenduta. Hustubideak, kanaletak eta estoldak ere garbitu behar dira.

Eraikin hauen atzealdea:
- Santakurtz kalea, 5etik 15eta eta 25etik 27ra.
- Iturrigorri frontoiaren atzealdea.
- Loramendi 9,11 eta 13.
- Errekabarren kalea, 2tik 22ra, Osakidetzaren Anbulatorioa, Santa Rita Komentua.
- Araba Ibilbidea, 34 bis-etik 42ra.
- Bedarreta 15, 16 eta 17.
- Txarapea (ezpondaren beheko aldea).

Garbiketaren maiztasuna hilean behingoa izango da gutxienez.

5.- ESKOLETAKO PATIOAK GARBITZEA

Udalerriko eskoletako patioak eta inguruak, eskailerak eta igarobideak garbituko dira.

Hauek dira garbitu beharreko patioak:
- Kurtzeberri eskola, barne dituela patioa, atzealdea eta y Iturrigorri Frontoia.
- Herriko Plaza 1, barne dituela Herriko Plaza, aldamenetako patioak eta arkupeak.
- Arizmendi Ikastola, Basabeazpi gunea.
- Pausoka.

Garbiketaren maiztasunak hauek izango dira:
-Garbiketa sakon bat astean behin, barne hartuta erraztatzea, urarekin garbitzea eta paperontziak hustea. Garbiketa hori astelehen goizeko 9ak baino lehen burutu beharko da.
-Horrez gain, mantentze garbiketa bat egingo da asteko gainerako egunetan (astearte, asteazken, ostegun eta ostiralean).

Patioen garbiketa garaia izango da:
-Urte osoan zehar eskoletako patioetan.

6.- AZOKA GARBITZEA

Azoka garbitzeko, Gernika plaza garbitu beharko da eta inguruetan sakabanatuta gelditu diren hondakinak bilduko dira (lorategi eremuan, etab.) azoka egunetan (astean behin), astelehenetan.

Horrez gain, adjudikaziodunak kartoi, egur eta abarretako hondakinak bilduko ditu eta gaikako bilketarako edukiontzietara eramango ditu.

Garbiketa 15:00ak baino lehen amaitu beharko da.

7.- HAUR PARKEAK GARBITZEA

Hiri eremuko haur parkeen eguneroko garbiketa da eta barne izango ditu zoladura garbitzea, paperontziak hustea eta parkeko elementuak berrikustea eta, beharrezkoa balitz, garbitzea.

Era berean, jai-garaietan gune horiek lehentasunez garbitzea aurreikusiko da. Bereziki, hirigunetik eta taberna-gunetik gertu daudenak, erabiltzaileen kalteak edo lesioak saihesteko.

Urtean bitan, ahal bada apirilean eta urrian, garbiketa sakona egingo da presiopeko urarekin, bai zoladuran eta baita parkeko ekipamenduko gainerako zatietan ere. Hor sartzen dira jolaserako ekipamenduak eta parkeko beste edozein jolas-elementu.

8.- TXAKURRENTZAKO EREMUAK GARBITU ETA MANTENTZEA

Udalerrian txakurrentzat dauden eremuak garbitu eta mantendu beharko dira, hau da, gune hauetan pilatutako gorozkiak kendu eta paperontziak hustuko dira.

Nolanahi ere eta emango duten zerbitzuaren inguruko proposamen zehatza egiteko lizitatzaileen betebeharra gorabehera, txakurrentzako eremuen garbiketa eta mantentze zerbitzuak, inguruetako paperontziak hustea barne, astean behingo maiztasuna izango du gutxienez.

Gaur egun txakurrentzako eremu bakarra dago (Bedarreta-Lausitta_Unibertsitatearen atzealdean).

C.- GARBIKETA BEREZIAK

1.- PAPERONTZIAK GARBITZEA

Zerbitzu honek barne ditu paperontzien garbiketa, kanpotik eta barrutik, eta pegatinak, pintadak edo antzekoak kentzea ere. Lan hauek egiteko, merkatuan dauden gailu edo bitarteko eraginkorrenak eta malguenak erabiliko dira.

Lanak egin aurretik Udalari horren berri emango zaio, eta, lanak amaitu ondoren, horien inguruko txostena aurkeztuko da.

Garbiketaren maiztasuna urtean bikoa izango da gutxienez, ahal bada apirilean eta urrian.

Lan hauek egiteko, merkatuan dauden gailu edo bitarteko eraginkorrenak eta malguenak erabiliko dira.

2.- EDUKIONTZIEN INGURUAK GARBITZEA

Zabor eta birziklatze edukiontzien eremuak sakonki garbitzean datza. Eremu hauek garbi mantentzeko erraztatze edo ur bidezko garbiketak egingo dira, urtean 4 aldiz gutxienez, ahal bada otsailean, maiatzean, abuztuan eta azaroan, eta beharrezkoa den guztietan ere.

Lanak egin aurretik Udalari horren berri emango zaio, eta, lanak amaitu ondoren, horien inguruko txostena aurkeztuko da.

3.- OLIO ETA KOIPE ORBANAK GARBITZEA

Ibilgailuek zein herritarrek, erregaia jartzean, eragindako olio, koipe, erregai eta antzeko orbanak garbitzean datza. Orban hauek ez dira erraztatze eta ur bidezko garbiketa eragiketekin desagertzen.

Lan hauek egiteko, merkatuan dauden gailu edo bitarteko eraginkorrenak eta malguenak erabiliko dira.

Produktu geldo ez kimikoak erabiliko dira aipatu koipe, olio, erregai eta antzekoak desagerrarazteko. Bide publikoan erabiltzeko seguruak diren produktuak izango dira.

Garbiketaren maiztasuna beharretara egokituko da, oinezko zein ibilgailuen zirkulazio segurua bermatzeko moduan.

4.- ESPALOI ETA PLAZETAKO ZOLADUREN GARBIKETA BEREZIA

Udalerriko zenbait eremutako zoladura modu intentsiboan garbitzean datza, erraztatzeko makinari atxikitako garbiketa modulu baten laguntzarekin, horretarako giza baliabide eta baliabide material egokiak baliatuta.

Nolanahi ere eta emango duten zerbitzuaren inguruko proposamen zehatza egiteko lizitatzaileen betebeharra gorabehera, garbiketa intentsiboaren zerbitzuak eremu bakoitza urtean bitan garbitzeko moduan emango da, ahal bada apirilean eta urrian.

Hauek izango dira garbitu beharreko zoladurak:

- Herriko plaza, arkupeak barne.
- Iralabarriko arkupeak.
- Errekabarreneko arkupeak.
- Belorrietako arkupeak.
- Iturrizarreko arkupeak.
- Durana pasadizoa 30.
- Planoetan zehaztutako eremuak
- Tabernetako terrazak

5.- IGANDE ETA JAIEGUNETAKO GARBIKETA BEREZIA

Dagokion planoan adierazitako eremua urteko igande eta jaiegun guztietan garbitzean datza. Eremu hauek bereziki pairatzen dituzte asteburu eta jaiegunetako jardueraren ondorioak, batez ere udalerriko erdigunean. (2. ERANSKINEKO planoan adierazitako eremua).

Gauzatuko diren zerbitzuak ahalik eta balioaniztunenak izango dira; beraz, erraztatze mistoak, ur bidezko garbiketa mistoak eta behar diren eragiketa guztiak aplikatuko dira. Lizitatzaileek giza baliabide eta baliabide material egokiak jarriko dituzte lan horietarako.

6.- BEREHALAKO EKINTZAKO GARBIKETA ZERBITZUA

Nolabaiteko malgutasuna beharko da erabilgarri dauden bitartekoei dagokienez, konponbide azkar eta eraginkorra behar duten lanak –aurreikusita egon ala ez– berehala gauzatu ahal izateko. Lanaldi barruan, zerbitzua berrantolatu ahalko da egoerak hala eskatzen badu, eta lanalditik kanpo, eskaintzan adierazitako prezio unitarioen arabera fakturatuko da zerbitzu hau.

7.- EKITALDI, AZOKA ETA FESTEN ONDORENGO GARBIKETA

Ekitaldi, azoka, herriko festa, manifestaldi edo bide publikoan egindako ekitaldi, hauteskunde kanpaina, herritarren kontzentrazio eta abarren ondorioz herritarren jarduera logikoari dagokiona baino zikinago dauden eremuak garbitzea da helburua.

Bide publikoko eremu horien garbiketa kasuko ekitaldia amaitu ondoren egingo da, dagokion erraztatzearekin eta urarekin ere garbituta, beharrezkoa balitz.

18:00ak baino lehen amaitzen diren ekitaldien kasuan, garbiketa egunean bertan egingo da; gainerako kasuetan, hurrengo eguneko lehen orduan egingo da.

Giza baliabide eta baliabide materialen antolaketa enpresaren eta Udaleko zerbitzu teknikoen artean adostuko da, ekitaldia baino bi aste lehenago. Hala ere, azoka eta jaietako garbiketan gutxienez 3 pertsona egotea aurreikusten da.

Informazio helburuetarako, hona hemen ospatzen diren festa finkoen zerrenda: (gutxi gorabeherako datak)

Inauteriak (otsaila-martxoa, Txapeltxin (larunbatean) + Inauterietako igandea, 2 egun).
San Juan jaiak (ekainak 23, 1 egun).
Portasoleko jaiak (uztaila, 2 egun).
Andramari jaiak (abuztua, 5 egun).
San Miguel jaiak (iraila-urria, 3 egun).
Txarapeako jaiak (iraila, 1 egun).
Gabon Zahar eguna (abenduak 31).

8.- PINTADAK, KARTELAK, PEGATINAK, BANDERATXOAK ETA PANKARTAK KENDU ETA GARBITZEA

Adjudikaziodunak bide publikotik (fatxadak, kale argiak, seinaleak, markesinak, karteletarako panelak, zorrotenak…) kendu beharko ditu, etengabeko moduan eta elementu horiek kaltetu gabe, pintadak, kartelak, pegatinak, pankartak, banderatxoak eta antzekoak. Lan hori Udalak momentu bakoitzean ematen dituen jarraibideen arabera egingo du adjudikaziodunak.

Fatxadetako pintadei dagokienez, fatxada mota hauetakoak bakarrik garbituko dira: harrizko fatxadak (harri hormak, harrizko plaka estaldurak…), bistako adreiluzko fatxadak, akabera zeramikoa duten fatxadak eta panel fenoliko edo antzekoen fatxadak, Betiere fatxadako materiala kaltetu gabe eta bitarteko egokiak erabiliz (makinak, produktuak, etab.).

Ez dira agiri honen irismenaren barne egongo fatxada margotuetako, geruza bakarreko morterozko fatxadetako eta antzekoetako pintadak kentzea.

Lizitatzaileek emango duten zerbitzurako proposamen zehatza egin beharko dute, bitarteko ahalik eta balioaniztunekin, eta egokiak diren giza baliabide eta baliabide materialekin.

Adierazitakoa gorabehera, Udalak honako hauek ditu: kartelak jartzeko 5 panel, gutxi gorabehera, 15 egunez behin garbitu beharko direnak (hilabete bakoitzeko 1ean eta 15ean gutxi gorabehera); iragarkiak jartzeko kristalez estalitako 4 panel, astean behin garbitu beharrekoak; eta 8 autobus markesina, eta astean behin kendu beharko dira horko kartelak eta pegatinak.

9.- ARAZO ZEHATZAK DITUZTEN EREMUEN GARBIKETA BEREZIA

Garbiketa arazo bereziak dituzten Udalerriko eremu zehatzetako zoladura sakonki garbitzean datza. Batez ere, asteburuetan txizez eta okadaz betetzen diren eremuak izaten dira.

Garbiketa zerbitzu horretarako bitarteko tekniko bereziak behar izatea gerta liteke, garbiketa behar duten guneak direla eta (arkupeak, saltokietarako sarrerak, etab.) garbitzeko erabil daitezkeen bitartekoak mugatuak direlako, ura metatzea eta eremu pribatuetara sartzea saihestu behar baita.

Hona hemen eremu hauen zerrenda eta maiztasunak:
Astean behin, astelehenetan, ezkerreko fatxada, Mitarte kaleko 18tik Basabe Industrialderantz, Mitarte kaleko atariak/saltokiak Andramariko kantxaren aldetik, etab.

10.- HUSTUBIDEAK GARBITZEA

Hustubideetan gelditu diren hondakinak garbitu beharko dira, hustubideek momentu oro behar bezala funtzionatzen dutela bermatuta.

Zerbitzuaren aldian behingo parteak gorabehera, Udal Zerbitzu Teknikoei jakinaraziko zaie sarrien buxatzen diren, hondakin gehien metatzen diren eta/edo eraikuntza akats gehien dituzten eremuak edo tarteak zeintzuk diren.

Garbiketa behar den guztietan egingo da eta, gutxienez, urtean bitan, udazkenari arreta berezia jarrita, hostoen erortzea dela eta. Neurri bereziak hartuko dira hustubideak bereziki zikintzen dituzten ur jasen ondoren.

11. ELURTE ETA IZOZTEETARAKO PLANA

Elurteak edo izozte handiak gertatzen badira, Udalak Elurteetarako Planean zehaztutako zerbitzuak eta baldintzak errespetatu beharko dira. Kasu horretan, adjudikaziodunaren langile guztiak Udalaren esanetara egongo dira.

Gatz edo bestelako urgarrien hornidura Udalaren kontura izango da.

12.- LARRIALDIETARAKO PLANA

Larrialdi edo aparteko egoera kasuetan, adjudikaziodunak Udalaren eskura jarriko ditu Udalak egokitzat jotzen dituen bitarteko guztiak, eskaintzan adierazitakoen artean.

Zerbitzua eskaintzarekin batera aurkeztu diren prezio unitarioen arabera fakturatuko da.

II.- HONDAKINEN BILKETA ETA GARRAIOA

A.- ANIMALIA HILEN BILKETA (Txakurrak, katuak, usoak, arratoiak…)

Animalia hilak bide publikotik kenduko dira horretarako beharra ikusi edo jakinarazi den guztietan.

Adjudikaziodunak indarreko legeriaren arabera egingo ditu bilketa eta kudeaketa, kudeaketa kostuak Udalaren kontura badira ere.

B.- GARBIKETAN JASOTAKO HONDAKINEN BILKETA ETA GARRAIOA

Garbiketa zerbitzuek sortutako hondakinak indarreko legeriaren arabera biltzean datza. Horretarako, adjudikaziodunak egokiena den irtenbidea proposatuko du.

Eskuzko erraztatzean sortzen diren hondakinak bide publikoan dauden birziklatze edukiontzietara eramango dira (5 gai: organikoa, ontziak, papera, beira eta errefusa). Erraztatze mekanikoan sortutakoak ondore hauetarako gaitu diren edukiontzien eremuan utziko dira.

Kontuan hartu behar da zabor poltsa txikiak botatzeko bide publikoetako edukiontziak erabili ahalko dira.

Beren ezaugarriak direla eta edukiontzi horietara bota ezin diren hondakinak behar bezala kudeatuko ditu adjudikaziodunak indarreko legeriaren arabera, kudeaketa kostu horiek Udalaren kontura badira ere.

Udazkenean (eta beste garai batean, ahal denean) landare jatorriko hondakinen gaikako bilketa egingo da eta une honetan dagoen landareen zabortegi mankomunatura (Arrasateko AKEI) eramango dira.

B. TXERTATZEKE DAUDEN URBANIZAZIO BERRIAK

Eremu bakoitzaren kasuan, beharko diren giza baliabideak eta makinak xehatu beharko dira, eta kostua ere bai (guztizko kostua proposamen ereduan jasoko da). Kostu horiek aplikatuko dira eremu berriak txertatzeko.

Aurreikusten diren eremu berriak 1B eta 4A eremuak izango dira (ikus 02 planoa).

Horrez gain, urbanizazio berrien txertatze partzialen kasuan jarraituko duten irizpidea azaldu beharko dute enpresek.

IV. titulua. LANGILEAK, MATERIALA ETA INSTALAZIOAK

LANGILEAK

A.- Orokortasunak

Langile kopurua nahikoa izan beharko da eta langileek zerbitzua emateko gaitasun egokia izan beharko dute. Lehiaketako zerbitzuen inguruan lizitatzaileek eskainitako planetan, zerbitzu bakoitza emateko behar diren lan eta langileen aurreikuspenak zehaztu egingo dira.

Erantzukizunen esleipen eta agintaritza logiko eta zehatzak dituen administrazio eta funtzionamendu egitura bat definitu beharko da, antolaketa seguru eta erantzulea lortzeko, ezarritako helburuen araberakoa eta Agirian xedatutako dokumentu eta informazio guztia idatzi, kudeatu, kontrolatu eta interpretatzeko gaitasunarekin.

Zerbitzuak ez dira inolaz ere goizeko 7:00ak baino lehen hasiko.

B.- Zerbitzuak gauzatzeko derrigorrezko lanpostuak:

Zerbitzuekin zerikusia duten gai guztietan enpresa Udalaren aurrean ordezkatuko duen **Teknikari Ordezkaria.** Zerbitzuek behar dituzten erabakiak hartzeko adinako boterea izango du; beraz, zerbitzuek ez dute pairatuko erabakiak hartzeko legezko gaitasun edo gaitasun formalik ez izateagatiko ondoriorik. Ahalordedun horrek zerbitzuen inguruan antolatzen diren bileretan parte hartu beharko du, betiere deialdia hogeita lau ordu lehenago egin bada, edo antzeko ahalmen erabakia duen ordezkari bat bidaliko du.

Zerbitzuaren Arduradun bat, antzeko lanpostu batean gutxienez ere bost urteko esperientzia duena. Zerbitzuaren eguneroko antolaketa, ikuskapen eta kontrol lanez arduratuko da, eta ekipamenduen mantentze eta kontserbazio eginkizunen arduraduna izango da ere. Telefono bidez aurkitzeko moduan egongo da (24 ordu / 365 egun).

Lizitatzaileak bere eskaintzan aurkezten dituen zuzeneko **langileak.**

Era berean, zerbitzuetara esleitutako **zeharkako langileen** zerrenda xehatua aurkeztu beharko da, zerbitzuen funtzionamendu zuzena bermatzeko.

C.- Langileen subrogazioa

Lan kontratuen subrogazioa: kontratistak lan arloko legeriak horren inguruan xedatutakoa beteko du.

Uneko kontratistaren langileen baldintzak eta ezaugarriak ezagutze aldera, agiri honen eranskin moduan txertatu da aipatu langileen egoeraren laburpen koadroa. (3. ERANSKINA).

D.- Langileen arduraldia

Zerbitzuari atxikitako langile guztiek kontratuaren xederako lan egingo dute esklusiban. Bestelako zerbitzuak gauzatu ahal izateko, Udalaren agindu edo berariazko baimena jaso beharko dute.

E.- Langileen inguruko betebeharrak

Kontratistak langileen baldintzak doitu beharko ditu indarreko legerian xedatutakoaren arabera. Ez betetze guztiak kontratistaren erantzukizun esklusiboa izango dira.

Agiri honetan eta aurreko adjudikazio kontratuan aurreikusitako zerbitzuei atxikitako langileek ez dute inolako lan harremanik izango Udalarekin kontratuaren indarraldian zehar edo kontratua amaitu edo suntsiarazi ondoren.

Ezingo zaio Udalari inolako erantzukizunik eskatu eta Udala erantzukizun orotatik libre egongo da kontratistaren eta bere langileen arteko erreklamazioen kasuan.

F.- Larrialdietarako langileak

Kontratistak larrialdietarako telefono bat jarriko du (eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan) zerbitzuaren udal zuzendaritzaren, poliziaren edo partikularren aldetik jasotzen diren abisu, erreklamazio eta jarraibideak kudeatzeko. Zerbitzu hori lanegunetan zein jaiegunetan egongo da erabilgarri. Komunikazio horiek liburu batean idatziko dira eta bertan adieraziko dira emandako aginduak eta horien jatorria, data eta ordua.

G.- Langileen ordezkapenak

Oporraldi, gaixotasun baja, baimen, hobekuntza ikastaro eta abarretarako, enpresak ordezkatze plan egokiena proposatu beharko du.

Lizitatzaile bakoitzak “Oporraldietarako plan xehatu” bat proposatuko du, Aretxabaletaren moduko ezaugarriak dituen udalerri bateko zerbitzu beharren arabera.
Adjudikaziodunak 24 orduren buruan eman beharko du bajen berri, eta derrigorrezkoa izango da baja hartu duen langilea baja hasi eta egun bateko epean ordezkatzea, absentziaren iraunaldi osorako.

Zerbitzuaren Arduraduna aldatu edo ordezkatu behar izatekotan, adjudikaziodunak idatziz eta nahikoa aurrerapenarekin proposatuko dio Udalari aldaketa hori, proposatzen duen pertsonaren curriculuma aurkeztearekin batera. Horren arabera, Udalak, egokia baderitzo, ordezkapena baimenduko du.

Urtero, kontratistak Udalari konpentsatuko/ordainduko dio (Udalak berak erabakitzen duenaren arabera) aurreko urtean ordezkatu ez ziren langileen absentzien ondorioz aurreztutako zenbatekoa.

H.- Uniformea

Agiri honen zerbitzuei atxikitako langileek uniforme egokia eramango dute jantzita, zerbitzuen identifikazioa, segurtasuna eta kontrola ziurtatzeko. Uniforme horrek barne izango ditu, edozein kasutan ere, Laneko Arriskuen Prebentziorako Legean eskatzen diren segurtasun eta babes bitartekoak.

Jantzien kantitatea eta kalitatea indarreko hitzarmen kolektiboetan adostutakoaren arabera arautuko dira.

I.- Hizkuntza betebeharrak

1.- Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik,

- Zerbitzu arduradunak Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasunaren pareko ahozko maila egiaztatu beharko du (Administrazioko 2.HEren parekoa, ahozkoan).

- Kale garbiketa lanak egingo dituzten langileen %33k Europako Erreferentzia Markoaren B1 gaitasunaren pareko ahozko maila egiaztatu beharko dute (Administrazioko 1.HEren parekoa, ahozkoan).

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,

- Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, beharrezko neurriak adostuko dira zerbitzu hartzaileen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

2.- Herritarrei zuzendutako komunikaziorik eginez gero (oharrak, errotuluak, kontzientziazio kanpainak, etab.) euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, betiere euskarari lehentasuna emanda.

3.- Enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera...) euskaraz izango dira, edo ele bietan.

MATERIALA ETA MAKINAK

A.- Orokortasunak

Zerbitzuak merkatuan dauden eta lanen kalitate optimoa lortzeko behar diren teknika eta tresna guztiak izango ditu barne.

Sistema hauek, ahal bada, mekanikoak izango dira eta zehatz-mehatz azalduko dira eskaintzan.

Adjudikazioduna zerbitzua behar bezala emateko behar diren makina eta ekipamendu guztiak eskura jartzeaz arduratuko da.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira konponketa, mantentze, kontserbazio, nahitaezko berrikusketa, aseguru eta bestelakoen gastuak kontratuaren indarraldi osoan zehar.

Makina guztiek indarreko araudiak beteko dituzte zarata, kutsadura eta segurtasunari dagokienez.

Makina guztiek berria izan beharko dute.

Zerbitzuari atxiki gabeko makinak egon daitezke, beste erabilera batzuekin partekatuak.

Makina eta tresnen gutxieneko ezaugarriak:

KONTRATAK EKARRITAKO MAKINERIA.

GARBIGAILU ELEKTRIKO BAT. 2M3-KO

- Gutxienez 30 kW-eko guztizko potentzia duten motorrak
- Hondakinen tobera altzairu herdoilgaitzezkoa/aluminiozkoa izango da, eta gutxi gorabehera 2 m3-ko edukiera gordina izango du.
- Autonomia zerbitzuan: 8-10 ordu.
- Bi eskuila izango ditu, eskobatzeko gutxienez 2,25 m-ko zabalera izango dutenak.
- Kabinatik eskuilak elektrikoki inklinatzea
- Abiadura: 24,9 km/h (Lana: 0-10 km/h)
- "B" motako gidabaimena
- Malda gaindiezina: % 30-35
- Litiozko trakzio-bateria. Edukiera: 1000 Ah.
- 48 V-eko makinaren tentsioa
- Hondakinak kargatzeko alboko atea
- Goi-presioko garbiketa-pistola
- Eskuzko hurrupatze-hodia eskuinaldean
- Aparkaleku-sentsoreak
- Atzeko kamerak eta xurgatze-ahokoak
- Aire girotua eta berogailua.
- Ordezko gurpila
- Autonomia zerbitzuan: 8-10 ordu.
- Kargagailu trifasikoa 7.2 kw – 160 Ah – 380 V litiozko baterietarako
- Eskuilen inklinazio elektrikoa, urrutiko agintearekin.

- Hari bidezko urrutiko aginte-sistema, altuerako deskarga egiteko
- Zoladuretarako goi-presioko errotore birakaria
- Kabinaren gaineko aurreko kamera, multibisio-pantailarekin.
- Eroale pneumatikoaren eserlekuak, buru-euskarriekin eta hiru puntuko uhalarekin
- Tenax Link Sim datuak, Tenax Link plataformaren erabilera 12 hilabetez.
- Ordezko gurpilak katuarekin.

ESKUZKO BARRE-MAKINA ELEKTRIKOA

- Eskuzko garbigailu elektrikoa, % 100 elektrikoa, eskuz xurgatzeko mahukarekin eta 110 litroko andelarekin.
- Alboetako 2 eskuila eta erdiko eskuila.
- Ekorketa-zabalera: 1.250 mm-s.
- 8 km/h-ko abiadura hartu behar du, gutxienez.
- 22 litroko ur-biltegia, eskuilak lainoztatzeko.
- Belar-sastrakak kentzeko eskuila du eskuinaldean, belar-sastrakak kentzeko motor indartuarekin.
- % 20ko maldak gainditu behar ditu
- Xurgapen indartuko motor elektrikoa

KAMIOI HIDROGARBIGAILUA

- % 100 elektrikoa den propultsio-ibilgailua.
- 48 V-eko korronte alternoko motor elektrikoa, gutxienez 10 kW-ko potentzia izendatua eta gutxienez 16 kW-ko potentzia maximoa dituena.
- Gehienezko abiadura 50 km/h-ra iritsi behar da.
- Bateriak: litiozkoak, gutxienez 21 kWh-ko edukierarekin eta 180 km edo gehiagoko WLTP autonomiarekin. Kargagailu adimenduna, 220 V.Cabinako base batean zuzeneko karga duena: 2 plazakoa, segurtasun-uhal homologatuekin. Beirazko ateak, beheraino itxitura zentralizatuarekin eta atzerantz irekita, ikuspena maximizatzeko eta pertsonen igoera eta jaitsiera errazteko.
- Pantaila digitala, baterien karga-maila, velozimetroa, orduak zenbatzea, baterien egoera kontrolatzea, argiak, azterketak, etab. bistaratzen dituena.
- Atzeko eta aurreko LED argiak.
- LED eguneko argia.
- LED itsasargi birakaria.
- Haizetakoa, berogailua. Berogailua haizagailu elektrikoarekin.
- Txasisa: 2.500 mm-ko gutxieneko ardatzen arteko distantzia. 1.000 kg-ko gutxieneko karga-ahalmena. Mc Pherson motako aurreko esekidura. 4.800 mm-tik gorakoa ez den zintarrien arteko biraketa-erradioa. Korrosioaren aurkako kataforesi-tratamendua. Kabinako eserlekuen azpiko aurreko ardatza, gidariaren ikuspena maximizatzeko.
